

1. Balio proposamena

Noizbait saiatu zara zure rutina hobetzen kirola gehitzen egunerokoan baina zure disziplina faltak ez dizu utzi modu jarrai batean egiten? Horrela bada, APP honek zure bizitza alda dezake. APPa deskargatzen dezun unetik aurrera ekin ahalko diozu zure ohituren aldaketari, izan ere, zure denbora librean kirola egingo duzu eta zure egunerokoak sartuko den ekintza bat izango da. Beraz, orain arte zer egin jakin gabe, telebista ikusten... kirola egin nahi baina edozein arrazoirengatik egin gabe igaro duzun denbora galdua bukatuko duzu horrekin, gure APParekin eta kirola egiten denbora aprobeztatuko duzu.

Bada jendea ez duena kirolik egiten arrazoi desberdinengatik, alfertasunengatik, denbora faltagatik... Horretarako, gure APP-a deskargatu, zure eguneko helburuak ipini: Distantzia, denbora, kaloriak... Eta zein eguneko unetan nahi dezun notifikatu. Ondoren, APP-ak rutina bat programatuko du zuretzat eguneroko bizitzarako, eta kirol desberdinak proposatuko dizkizu.

- Gure app-ak berritasuna eskaintzen die bezero guztiei, kirola egiteko gomendatzen baitizu.
- Jendeak kirola egiteko bultzatzen dizun estrategia berri bat izan daiteke, horrela
- Jendea prest egongo da gure app-a edukitzea, izan ere, pertsonei kirola egitea bultzatzen die, horrela bizitza osasuntsuago bat edukitzeko.
- App-a oso erabilerraza da, zuk ez duzu ezer egin behar, mobilak kirola ez duzunean egiten identifikatuko du, eta abisatu egingo dizue (alarma batekin). Era beran aplikazioan zenbat kirol egin duzun adieraziko dizu.

Horregatik, PaseatzerAPP deskargatzen duen pertsona orok jasoko dituzten onurak honako hauek dira: gorputz gihartzuagoa izango du, denbora librean ondo aprobeztatuko du eta garrantzitsuena, osasun hobe bat izango du kirola bere egunerotasunean sartuko duelako.



